

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000003290

Espediente-zenbakia: 2022/IDA_DEK1385**Xedea****Bermeoko Udalean izandako intrusio** digitala dela eta, C2 azpitaldeko eskabideetako akatsak zuzentzeko epea berriro zabaltzea.**Aurrekariak**Lehenengoa: C2 azpitaldeko plazetan izena emoteko eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 23an hasi eta ekainaren 19an amaitu zen.Bigarrena: Behin behineko zerrendak uztailaren 3an argitaratu ziren Bermeoko Udaleko web gunean eta iragarki taulan. Behin behineko zerrendak horiek argitaratu eta hurrengo egunean, eskabideetako akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea eman zitzairen hautagaiei (uztailaren 4tik 17ra). Zuzenketa horiek Bermeoko Udaleko egoitza elektronikotik egin behar izan dituzte.Hirugarrena: 2023ko uztailaren 6an Bermeoko Udalak bere hornitzaile baten segurtasun arazo bat dela eta intrusio digital bat jasan zuenaren berri izan zuen CERT (Centro VACO DE Ciberseguridad) erakundearen bidez, Euskadin zibersegurtasuna sustatzeko Eusko Jaurlaritzak izendatutako erakunde publikoa.Laugarrena: Egun berean zerbitzariak isolatu, udal ekipamendu informatiko guztia saretik kanpo atera eta datu baseetara sarbide barik geratu zen Bermeoko Udala.Bosgarrena: 2023ko uztailaren 24ra arte udaleko datu base guztiak erabiltezin egon dira, edozein motatako tramitazio modu etenda eta datuetara sartzeko zein ateratzeko aukera gabe.Seigarrena: 2023ko uztailaren 6an izandako intrusio digitalaren ondorioz, C2 azpitaldera izena eman duten hautagaiek ez dute izan egoitza elektronikotik zuzenketa aurkezteko aukerarik.Zazpigarrena: 2023ko abuztuaren 2an, 2023 000003237 Alkatetza Dekretu bidez Bermeoko Udalak jasandako zibererasoaren adierazpena eta bere ondorioak onartu ziren.**Argudioak**Lehenengoa: Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretako 7.5 atalean adierazten denaren arabera:**7.5. Eskabideen akatsak****Sinadurea eta data**

“39/2015 Legearen 68. artikularekin bat etorritik, eskabideetan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskatuko zaio, udaleko iragarki-taulan eta iragarkia jarriz www.bermeo.eus webgunean (enplegu publikoaren eskaintza), hamar egun balioduneko epean dokumentazio falta zuzen dezan, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren. Hautaketa-prozesuak eskatzen duen dokumentazio hori eta gainerako dokumentazioa zazpigarren eta hamalagarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira”.

7.3.- Eskabideak aurkezteko modua.

“7.3.1 Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztuko da: <https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus>. Horretarako beharrezkoa izango da, egoitzan adierazita dagoen onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat edukitzea”.

Bigarrena: 2023ko uztailaren 6tik uztailaren 21era arte, Udaleko datu base guztiak erabiltezin egon dira. Intrusio digital hori C2 azpitaldeko eskabideetako akatsak zuzentzeko epean gertatu dela kontuan izanik, akatsak zuzentzeko epea berriro zabaldu behar da.

Erabakia

Goian aitatutako guztia kontuan izanik, honako hau erabaki da:

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoaren funtzionamendua normalizatuta dagoenez, C2 azpitaldeko eskabideetako akatsak zuzentzeko epea berriro zabaltzea.

Bigarrena: Epe hori zortzi egun balioduneko izatea, legeak ezarritako 10 egun balioduneko egoitza elektronikoak normaltasun osoz funtzionatu duen bi egunak kenduta.

Hirugarrena: Erabaki hau Bermeoko Udalaren web gunean eta iragarki-taulan argitaratzea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Sinadurea eta data

